

HAZIAK IDAZLE

Euskal Haziak elkarteak urtero idazketa txapelketa antolatzen du. Aurtengo lehiaketan ipuin baten segida asmatu behar zuten, 250 hitzetan gutienez, "Espazioa eta ametsak" gaiaren inguruan.



MAITENAREN AMETSAK

Arratsalde apal batez Maitena lanetik sartzen da. Egun gogor eta konplikatu pasatu du. Nekatua da eta buruan min du. Pentsatzen du bainu batek on egingen diola.


Bainugelara joaten da eta bainua prestatzen du: ur bero beroa, xaboi lurin goxo batekin eta liburu on bat. Maitenak maite du astrologia, planetak, izarrak eta zeruko elementu guzikiak. Irakurtzen duen liburua hortaz mintzo da eta Maitenari biziki gustatzen zaio.

Orduan plazerez urean sartzen da. Ur beroak berehala on egiten dio. Bere buruko mina laster partitzen zaio eta bere laneko problemak ahanzten ditu. Bere gorputza lasaitzen da, bainugela guzian luringoxoa hedatzen da. Bainua aparrez betea da.

Orain Maitena prest da bere liburua irakurtzen hasteko. Badira jada bi egun Maitenak bere liburua hasia duela eta irakurtzen duena biziki maite du. Orain bere liburua irekitzen du, badu oraino erdia irakurtzeko, biziki kontent da eta irakurketa hasten du.

Liburuaren istorioak kondatzen du mutiko ttipi baten abentura. Mutiko ttipi horrek, Izar izena duena, bere bizia pasatzen du planetaz planeta, bertako jendeen bizimodua ezagutu nahiz. Bere bizi laburrean jadanik sei planeta ezagutu ditu, haien bizimodu diferenteak, jende diferenteak eta lur diferenteak. Orain gure planetatik hurbiltzen ari da. Egun Jupiter planetara heltzen da. Jupiter planeta oso bitxia da, zeren eta dena ura da. Jendeak, arrainak bezala, urpean bizi dira. Maitena bere liburu eta ametsetatik ateratzen da bere ama entzuten duelarik oihuka. Maitenaren amak oihukatzen du, bere sukaldia uretan baita. Bere ametsetan Maitenak ahan-tzi du bainuko ura hestea eta ura bainugelatik atera da eta peko gela, non ama sukaldatzen ari zen, trenpatu du. Maitenak, bere Jupiterreko jendeak bezala, nahi zuen urpean bizi baina bere amak ez.

*Elena Irigoien
SFX Kolegioa Uztaritze
U4B1 bakarka lehen saria*



HAZIAK IDAZLE

Euskal Haziak elkarteak urtero idazketa txapelketa antolatzen du. Aurtengo lehiaketan ipuin baten segida asmatu behar zuten, 250 hitzetan gutienez, "Espazioa eta ametsak" gaiaren inguruan.

Opari liluragarria

Behin, herri txiki batean, aita, ama eta Miren bizi ziren.

Miren oso isila eta

lotsatia zen. Harremanak egitea kosta egiten zitzaion. Eskolan lagun min bakarra zeukan, Amaia. Egunero, goizeko zortzietan autobusa hartu eta, ikastetxera zihoan. Oso ikasle ona zen. Txikitatik espazioa gustukoa zeukan, afaldu eta gero, balkoira atera eta zerura begira liluratua geratzen zen, nola ote ziren ilargia eta izarrak pentsatuz. Ametsetan erdi lo geratzen zen.

Bere hamahirugarren urtebetetzean, amatxik opari miresgarria egin zion. Txikitatik espero zuena, Arthur C. Clarken espazioari buruzko liburu zoragarria, argitalpen berezia zuena. Hurrengo egunetik aurrera, Amatxik ez zuen uste liburua oparitzeak Mirenen bizitza hobera aldatuko zuenik, aldiro liburua eskolara eramaten zuelako bere altxorra izango balitz bezala. Nahiz eta tontakeria iruditu, liburua egunero eramatearen ondorioz, lagunak egiten hasi zen. Jostaldian ikaskideei espazioari buruzko gauza bitxiak kontatzen zien. Egunero, ikaskideak irriketan zeuden jostaldirako ordua noiz iritsiko zen itxoiten. Miren orduan egun batetik bestera ikastetxean garrantzizko pertsona eta guztiz maitekorra bihurtu zen. Arratsaldetan, beste ohitura bat hartu zuen, seiak aldera, bainu bat hartu eta bide batez, liburuaz gozatu eta amestu. Egunero amari erraten zioen:

- Amatxo bainua hartuko dut. Mesedez, ura bero-beroa prestatuko didazu? Amatxo!!! Xaboi!!!

- Bai, Miren berehala noa, lasaitu zaitetz!

Hamar minutu eta gero, amak Mireni xaboiak ekartzen zion eta bat-patean, xaboiak urarekin elkartzean burbulla asko sortzen zituen. Bere liburua irakurtzen ari zela, amesten hasten zen. Ura espazioa, burbuilak planetak, urak eta argiak egindako izpiak izarrak direlarik. Horrela, orduak eta orduak igarotzen zituen.

Gaur-egun, amatxik oparitu liburuari esker, Miren txikitan nahi bezala, astronauta bilakatu da eta haur txikientzako espazioari buruzko liburu bilduma argitaratu du.



*Laia Muñoz Berrondo
Hendaia kolegioa
4. zikloa bakarka
bigarren saria*